



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Portugaletoko Udala

Onetsi Portugaleteko entitate soziokulturalek eta eskualde-etxeek antolatu beharreko kultura jarduera zehatzetarako dirulaguntzei buruzko oinarri-arauak (akats zuzenketa).

2022ko maiatzaren 16ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 92. zenbakian, jasotako argitalpenaren izenburuan akatsa antzeman denez, eta Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 97/2009 Foru Dekretuaren 17. artikularekin bat etorriz, jarraian Portugaleteko erakunde soziokulturalei eta eskualdeetako etxeei osoko bilkuraren bidez onartutako laguntzak emateko oinarriari buruzko testu osoa argitaratzen da.

Portugaleten, 2022ko maiatzaren 17an. — Alkatea, Mikel Torres Lorenzo



**PORTUGALETEKO ENTITATE SOZIOKULTURALEK ETA ESKUALDE-ETXEK
ANTOLATU BEHARREKO KULTURA JARDUERA ZEHATZETARAKO
DIRULAGUNTZEI BURUZKO OINARRI-ARAUAK**

1. Arrazoibide juridikoak

- a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.
- b) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.
- c) Hori guztia bat datorren erregelamendu-, foru- eta autonomia-legeriari kalterik egin gabe, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauan toki-erakundeei esleitutako aurrekontu-arloko xedapenak kontuan hartuta.

2. Oinarri-arauen xedea eta helburuak

Oinarri-arauok helburu dute Portugalete udalerriko irabazi-asmorik gabeko entitate soziokulturalei eta eskualde etxeei dirulaguntzak ematea, Portugaleten kulturako egitarau zehatzak buru ditzaten herritar guztiei zuzentzen dizkietelarik herriko kultur eskaintzaren osagarri.

3. Diruz lagundutako eta kanpo geratzen diren jarduerak

Honako hauek diruz lagunduko dira: kultur arloko jarduerak izango dira, hala nola kultura hedatzekoak musika edo folklore arloetan, antzerkia, letrak, plastika-arteak eta ikus-entzunezkoak, erakusketak, antzezlanak, jaialdiak, sariketak, berriketaldiak eta hitzaldiak, kultur-asteak. Halaber, entitatearen jardueraren material grafikoaren eta entzunezkoaren edizioa, baldin eta bere hedapena bere kideen artean soilik egiten ez bada.

Hauexek, ordea, ez ditugu diruz lagunduko:

- a) Hezkuntza arloko egitarauak.
- b) Urtero egiten diren kultur-jarduerak.
- c) Elkarteko kideei begira bakarrik antolatzen diren txangoak eta jarduerak.
- d) Artea ekoizteko jarduerak.
- e) Portugaletetik kanpo egitekoak.
- f) Gune pribatuetan eta sarbide librerik gabekoetan garatutako jarduerak.
- g) Gastronomia-, gizarte-, gazte-, aisialdi- eta kirol- elkarteek, IGEEK eta ikastetxeek sustatutakoak.
- h) Udalak onetsitako planei kalte egiten dieten ekintzak.

Entitate eskatzaileek hainbat proiektu aurkeztu ahal badute ere, gehienez hiruna proiektu baino ezin izango zaie diruz lagundu.

4. Entitate onuradunen betekizunak

Egoitza nagusia Portugaleten duten, kultur arloan diharduten, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan inskribatuta dauden, irabazteko asmorik ez duten elkarteek, entitate soziokulturalek eta eskualde etxeek eska dezakete dirulaguntza. Halaber, onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 13. artikuluko beharrak bete beharko dituzte. Horretaz gain, hauexek ere bete beharko dituzte:

- Estatuetan islaturik agertu beharko da entitatearen helburuen artean kultura-jarduerak egin, sustatu eta zabaltzea dela.
- Portugaleteko Udalarekin eta Gizarte Segurantzarekin tributu-betebeharrak ordainduta izatea.
- Entitateak aurretiaz lortu ahal izan dituen Udalaren dirulaguntzak behar bezala justifikatu izana, baldin eta justifikatzeko data igaro ez bada.



Dirulaguntza hauen onuradunak ezin izango dira izan hezkuntza mailako entitateak ezta gastronomia-, gizarte-, gazte-, kirol- elkarteak, IGEak edo hezkuntza-zentroak ere. Halaber, kontzeptu berberetatik Udalaren beste dirulaguntza batzuk jasotzen dituztenak ere kanpo daude.

5. Entitate onuradunen betebeharrak

Onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 14. artikuluko betebeharrak bete beharko dituzte:

- Dirulaguntzaren emakida zehazten duten betekizunak eta baldintzak bete direla justifikatzea.
- Portugaleteko Udalak egin beharreko egiaztapen-jarduketei men egitea, bai eta estatuko zein Europako Erkidegoko kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantza-egiaztapeneko eta -kontrolako beste edozein jarduerari ere, eta jarduketa horiek gauzatzeko eskatzen zaien informazio guztia ematea.
- Beste edozein erakunde edo entitatek helburu bererako emandako dirulaguntzak eskuratuz gero, horren berri eman behar da.
- Tributu-betebeharrak eta zuzenbide publikokoak, eta hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak bete beharko ditu.
- Kontabilitate-liburuak, bideratutako erregistroak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu behar zaizkion merkataritza- eta sektore- legeek ezarritakoaren arabera.
- Jasotako funtsen aplikazioaren agiri justifikagarriak gordetzea, agiri elektronikoak barne daudelarik, egiaztapen- eta kontrol-ekintzetan eskatzeko modukoak izan baitaitezke.
- Legez ezarritako zabalkunde-neurriak hartzea. Entitateak sortutako publizitatean Portugaleteko Udalaren babesak agertu beharko du.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funtsak itzultzea.

Honetaz gain, betebeharrak hauexek izango dituzte:

- Jarduera eta ikuskizun publikoak (erantzukizun zibileko aseguruak, joko eta ikuskizunen arautegia, toki publikoa erabiltzeko baimena, eta abar) antolatzeko indarreko araudia betetzea.
- Kultura zerbitzuari laguntzea hark behar dituen suposamenduetan, kultura- eta jai-arloko informazio mota (ikerlanak, inkestak, estatistika-datuak, eta abar) aurkeztuz.
- Antolatzailerak jarduerak antolatzearen ondoriozko gastuak beren gain hartzea, hala nola erantzukizun zibileko aseguruaren kontratazioa, Iberdrolari argi-hartu-neak ordaintzea eta Egile eta Argitaratzaileen Elkarte Orokorra ordaintzea orotari-ko ikuskizunak, berbenak, kalejirak, musika-kontzertuak, dantzaldiak eta abarrak antolatzeagatik. Gastuok entitate antolatzailerak bere gain hartu beharko ditu eta Portugaleteko Udalak ez du inoiz erantzukizun subsidiariorik izango.

6. Eskabideak aurkezteko tokiak eta epeak

Eskabideak Portugaleteko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira edo Herriarren Informazio eta Arretarako Bulegoan (San Roke plaza z.g.) baita Administrazio Publikoetako Prozedura Administrazio Erkideari buruzko 39/2015 Legeak aurreikusten dituen tokietako batean.

Eskabideok aurkezteko epea dagokion deialdian zehaztuko da. Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7. Aurrekontuko kreditua

Aurrekontuko dirusaila eta dirulaguntzaren zenbatekoa dagokion deialdian zehaztuko dira.



8. Emakidaren prozedura

Diruz lagundu daitekeen kontzeptuari norgehiagoka aplikatuko zaio. Norgehiagoka-araubidean, aurkeztutako eskabideak konparatuz ematen dira dirulaguntzak, oinarrietan adierazitako irizpideen arabera lehentasun-hurrenkera ezartzeko. Balorazio handiena lortu dutenei ematen zaie dirulaguntza, deialdian ezarritako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

Halarik ere, ez dira zerrendatuko gutxieneko mugara (30 puntu) iristen diren eskaerak, baldin eta deialdian ezarritako kreditua nahiko bada eskaera kopurua kontuan hartuta, behin eskaerak aurkezteko epea bukatuta.

9. Balorazio irizpideak

Entitateak I. Eranskinean eta II. Eranskinean emandako datuak baloratuko dira, irizpideok eta puntuak aplikatuta:

- a) Aurkeztutako programaren balorazioa gehienez 75 puntu:
 - a.1) Proiektuaren balorazioa (guztira 54 puntu):
 - i. Aurkeztutako proiektuaren kalitatea: jarduera kopurua, jardueren kalitatea bera eta proiektuaren iraupena: Gehienez 12 puntu.
 - ii. Proiektuak zer nolako garrantzia duen Portugaleteko kultur giroan: jardueraren eragina herritarrengan, jendea erakartzeko gaitasuna eta zein arlori dagoen zuzenduta. Gehienez 10 puntu.
 - iii. Jarduerak udalerritik kanpo zer nolako garrantzia duen, proiektuak beste udalerriri batzuetako jendea hona erakartzeko duen gaitasuna. Gehienez 8 puntu.
 - vi. Proposamenaren izaera berritzailea eta urteetan zehar jarduerak eduki duen sendotzea: gehienez 8 puntu.
Lehen aldiz egiten den proiektu bat 8 puntu.
Proiektu sendotua 2 eta 4 urte artean 2 puntu.
5 eta 10 urte artean 4 puntu.
11 eta 20 urte artean 6 puntu.
21 urtetik gora 8 puntu.
 - v. Proiektua deialdi honen helburuetara egokituta egotea, kontuan hartuta deialdiaren xedea dela programak edo jarduera zehatzak diruz laguntzea eta, ez, aldiz, urteko programak. Gehienez 5 puntu.
 - vi. Aurkeztutako jardueraren proiektua aurrekontura doitzea: garatu beharreko proposamenaren eta burutzeko kostuaren arteko oreka. Gehienez 5 puntu.
 - vii. Jarduerak eragina izatea gizonak eta emakumeak berdintzeko sustapenean; berdintasuna sustatzen duen proiektua izatea. Gehienez 3 puntu.
 - viii. Jarduera EAEko hizkuntza ofizial bietan garatzea. Gehienez 3 puntu.
 - a.2) Programaren bideragarritasuna (gehienez 21 puntu)
 - i. Jarduera garatzeko giza-baliabideak: kontuan hartuko da entitateak zenbat langile duen jarduera hori garatzeko. Gehienez 7 puntu.
 - ii. Jarduera garatzeko baliabide egiturazkoak eta teknikoak: kontuan hartuko da positiboki jarduera nahiz jarduera-programa egiteko entitateak jarritako baliabideen aniztasuna eta kantitatea. Gehienez 7 puntu.
 - iii. Eskatzailearen beraren baliabide ekonomikoak: aldeko puntuazioa emango zaie proiektua finantzatzeko erakundeak eskura jarritako baliabide ekonomikoak, izan berezkoak izan besterenak, beste administrazio batzuen dirulaguntzetatik ez badatoz. Gehienez 7 puntu.



- b) Entitate eskatzailearen balorazioa (gehienez 25 puntu):
- i. Entitate eskatzailearen garrantzia edota tradizioa Portugalete inguruan, alegia, zein urtetan eratu zen eta zenbat bazkide duen. Gehienez 10 puntu.
Entitatearen antzintasunaren urteak.
10 urtera arte: puntu 1.
11-20 urte bitartean. 2 puntu.
21-30 urte bitartean. 4 puntu.
31 urte baino gehiago. 6 puntu.
Entitatearen bazkide- edo bazkide aktibo- kopurua.
25 bazkideraino. Puntu 1.
26-50 bazkide bitartean. 2 puntu.
51- 75 bazkide bitartean. 3 puntu.
76 bazkide baino gehiago. 4 puntu.
 - ii. Entitateak Udalaren kultur egitarauan parte hartzea: Portugaleteko Udalak antolatzen dituen ekitaldi edo bileretan parte hartzea irabazi-asmorik gabe. Gehienez 5 puntu.
 - iii. Entitateak Udalaren beste elkarte batzuekin kolaborazio-lanak egitea irabazi-asmorik gabe. Gehienez 5 puntu.
 - vi. Entitateak urtearen buruan udalerriko kultur-giroan parte hartzea: herritar guztiei zuzenduriko proiektuen kopurua eta aniztasuna. Gehienez 5 puntu.

10. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako formula hau aplikatuko da:

$$AM = P * (GD/100) * (AP / \Sigma BZ)$$

AM: Azken Munta.

P: Lortutako Puntuak.

GD:Gehienez Diruz lagun daitekeena.

AP: Aurrekontuko Partida.

BZ: Behin-behineko Zuzkidura.

$$BZ = B * GD/100$$

- 30 puntu baino gutxiago lortzen duten proposamenak ezetsi egingo dira.
- Kultura Sailak muga aldatzea izango du, baldin eta egitasmoak udalerrinari bereziki kultura hedatzen eta sustatzen laguntzen diolako ustea badu.
- Dirulaguntzen zenbatekoak ezin izango du inolaz ere banan-banan edo beste dirulaguntza batzuekiko norgehiagokan gainditu onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua.
- Dirulaguntzak burutzeko proiektuaren zenbatekoaren %80raino heldu ahalko dira, gehienez 13.000 eurokoa delarik.

11. Entitate onuradunak egin beharreko dirulaguntzen publizitatea

Dirulaguntzak jasotzen dituzten elkarteek derrigorrean Portugaleteko Udalaren Kultura Sailaren laguntzaren berariazko aipamena egin beharko dute, Udalaren armarrria agertuz diruz lagundutako jardueraren publizitate mota guztietan.

Publizitate hori elebidun argitaratu behar dute, euskararen erabileraren gaineko arau-tegiak dioena beteta. Halaber, sexismorik gabeko hizkera ez da erabiliko, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren gaineko legeekin bat etorriz.

12. Beste dirulaguntza batzuekin bateratu ahal izatea

Dirulaguntza horiek bateragarriak izango dira jaso daitezkeen beste batzuekin, eta adierazi beharko da deialdi honen xede bererako beste laguntzarik eskatu den (III).



eranskina), bai eta laguntza lortu dela eta jasotako zenbatekoa jakinarazi beharra ere, gertatu bezain laster.

Nolanahi ere, dirulaguntzen bidez eta beste finantzazio iturri batzuen bidez lortutako diru guztia ez da egitarauaren goste osotik gorakorik izango. Behar hori bete ezean, gehiegiz jasotakoa itzuli beharko du elkarteak.

13. Eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak

Informazioa eta deialdiaren agiri guztiak Udalaren webgunean (www.portugalete.org), Santa Klara kulturtegian (astelehenetik ostegunera, 8:30etik 14:30era eta 18:00etik 20:00etara eta ostiralean 8:30etik 14:30era), Portugaleteko Udaleko bulego orokorretan eta Herritarren Informaziorako eta Arretarako Bulegoan (San Roke plaza, z. g.) egongo dira eskuragarri.

Entitateek agiri hauexek aurkeztu beharko dituzte Kultura Sailak emandako arauzko ereduak erabilia:

- (I. eranskina) Eskabide-orri ereduak.
- (II. eranskina) Jardueraren edo jardueren proiektu zehatza.
- (III. eranskina): Aitorpena, batetik, beharrak betetzen dituelakoa eta, bestetik, ez pertsona eskatzaileari ez eta elkarte eskatzaileari ez dagokielakoa Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 13. artikulua onuradura izateko ezartzen dituen debekuetako bat ere
- Elkarte eskatzailearen ordezkaria den pertsona fisikoaren NANaren fotokopia.
- Bizkaiko Foru Ogasunaren agiriak, elkarteak zerga beharrak egunean dituela ziurtatzeko.
- Bizkaiko Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren agiria, elkarteak Ogasun eta Gizarte Segurantzarekikoak ordaindurik dauzkala, edo bestela, ordaindu beharretik salbuetsirik dagoela egiaztatzeko.

Bakarrik baldin eta erakunde eskatzaileak azken hiru urteotan aurkeztu ez badu edo aldaketarik egon bada:

- Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
- Estatutuen kopia.
- IV. Eranskina. Banketxearen ziurtagiria, elkartearen kontu-zenbakia eta horren titularra agertuko dituena. Titularra elkarteak izan behar du, ez pertsona fisiko batek.

14. Akatsak zuzentzea

Komenigarritzat jotzen bada, edo emandako datuen inguruan arrazoizko zalantzak badaude, dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango da, eskatzaileek alegatutako goerak justifikatze aldera.

Eskabidea eta horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa jaso ondoren ikusten bada espedientea ebazteko funtsezko dokumentuak edo datuak falta direla, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 21eko 1. artikuluan aurreikusitako moduan eman beharko den ebazpenaren ondoren.

15. Instrukziorako eta prozeduraren ebazpenerako organo eskuduna

Oinarri-arau hauetako dirulaguntzen emakidaren prozeduraren izapidetzarako organo eskuduna Kultura eta Jaien Sailaren administrazio-unitatea izango da.

Ebazteko organo eskuduna Alkatetza izango da, administrazio-bidea amaituko duen behin betiko erabakiaren bidez, organo instrukzio-egileak proposatuta.

Dirulaguntza ematen duen organoari, hau da, Alkatezari, egingo dio dirulaguntza emateko proposamena kide anitzeko organo batek, organo instruktorearen bitartez, Di-



rulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera. Kide anitzeko organoaren osaera honako hau izango da:

TITULARRAK

Presidentea: Kultura eta Jaien teknikaria

Kideak: Parte Hartze Saileko teknikaria

Idazkaria: Kultura eta Jaien Saileko idazkaria

ORDEZKOAK

Presidentea: Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Saileko zuzendaria

Kideak: Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

Idazkaria: Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Saileko idazkaria

16. Eskabideak birformulatzea

Baldin eta entitate bati ematen zaion dirulaguntzaren zenbatekoa eskatutakoa baino txikiagoa da %80 batean, Kultura Sailak ofizioz murriztuko du entitateak aurkeztu zuen hasierako aurrekontua. Entitateak aldatetak dituen azken aurrekontu hori zuritu beharko du. Murrizketa gehienez %25ekoa izango da ondoko taularen arabera:

Emateko dirulaguntzaren zenbatekoaren ehunekoa, diruz laguntzeko gehienezkoaren gainean	Hasierako aurrekontuaren zenbatekoaren murrizketaren ehunekoa
%81 – 100	%0,00
%76 – 80	%2,50
%71 – 75	%5,00
%66 – 70	%7,50
%61 – 65	%10,00
%56 – 60	%12,50
%51 – 55	%15,00
%46 – 50	%17,50
%41 – 45	%20,00
%36 – 40	%22,50
%31 – 35	%25,00

Jarduera edo egitaraua eskabidean agertzen den bezalaxe garatu beharko da. Onuradunak proposamena onartu duela ulertuko da, baldin eta ebazpenaren jakinazpena jaso ondorengo 15 egunetan ezetik ematen ez badu.

Edonola ere, entitateak uko egin ahal izango dio dirulaguntzari.

17. Diruz lagundutako jardueren azpikontratazioa

Diruz lagundutako jarduerak ezingo dira azpikontratatuak izan. Onuradun batek azpikontratazioa egiten duela ulertuko da, baldin eta dirulaguntzaren xedea den jardueraren burutzapen osoa edo zatizkoa hirugarren batzuekin hitzartzen badu. Kontzeptu honetatik kanpo geratzen da diruz lagundutako jarduera bera burutzeko onuradunak egin behar dituen gastuen kontrataziorako (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikulua).

18. Dirulaguntzen justifikazioa

Emandako dirulaguntzak justifikatzeko epea dirulaguntzak eman eta hurrengo urteko urtarrilaren 31n amaituko da.



Ez da Portugaleteko Udalak emandako kopurua soilik justifikatu behar, aurrekontu araztuaren %100, baizik, Dirulaguntzen Lege Nagusiak ezartzen duen bezala.

Dirulaguntza justifikatzeko prozedura kontu justifikagarri sinplifikatua izango da, V. eranskineko agiriokin bat etorriz:

- I) Diruz lagundutako jardueraren gastuen egiaztagiriak.
- II) Jarduera azaltzeko oroitidazkia, lortutako emaitzak eta dirusarrera-gastuen balantzea ere adierazi behar direlarik.
- III) Proiektuari dagozkion diru-sarreraren eta gastuen memoria ekonomiko xehatua. Memoria ekonomikoaren eredu normalizatura egokituko da, eta honako hauek jasoko ditu, gutxienez:
 - a. Gastuen eta diru-sarreraren balantzea (jarduera egiteko diru-sarreraren edo diru-laguntzen zerrenda zenbatekoak eta jatorriak adierazita daudelarik).
 - b. Proiektuaren ondorioz sortutako gastuen zerrenda sailkatua, honako datu hauekin: hornitzailearen datuak, IFZ/IFK, gauzatutako gastuen fakturaren zenbakia eta data, gastuaren kontzeptua eta zenbatekoa, birformatutako aurrekontuaren %100.
- IV) Portugaleteko Udalak dirulaguntza gisa jasotako zenbateko osoaren gastua egiaztatzen duten fakturak edo agiriak.
 - a. Jatorrizko fakturak edo froga-balio baliokidea duten agiriak aurkeztuko dira, merkataritzako trafiko juridikoan balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak, Portugaleteko Udalak dirulaguntza gisa justifikatu beharreko zenbateko osoarekin. Estantatuak izango dira. Jatorrizkoak interesdunei itzuliko zaizkie, izapideak egin ondoren, eta kopia konpultsatuak geratuko dira espedientean.
 - b. Fakturen ordainketa egiaztatzen duten banku-transferentziaren egiaztagiriak.
 - c. Ez da onartuko banku-transferentziaren frogagiririk ez duen ordainagiririk. Ez da onartuko 300,00 eurotik gorako ordainagiririk, ez zerbitzu profesional gisa, ez aplikatzekoa den zerga-legeriarekin bat ez datozenak edo ordainketa frogatzeko behar besteko informaziorik ez dutenak.
- V) Eginiko publizitatearen eta material grafiki, idatzizko eta entzunezkoen aleak.

Justifikazio-betebeharra ez betetzeak edo nahikoa ez justifikatzeak edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua 1. paragrafoan aurreikusitako kausaren bat gertatzeak, jasotako zenbatekoak 38/2003 Legearen 37. artikulua 2. paragrafoan ezarritako moduan itzultzeko betebeharra ekarriko du.

Gastuaren justifikazio partziala egiten bada, justifikatu gabe geratu den gastuari dagozkion zenbatekoa itzuli beharko da. Nolanahi ere, proportzionaltasun- eta ekitate-printzipioak hartuko dira kontuan, eta, horretarako, kasu zehatz bakoitzaren inguruabarrak hartuko dira kontuan. Hau da, onuradunaren betetze-maila osorik betetzera modu esanguratsuan hurbiltzen denean, eta haren konpromisoak betetzeko jarduketa argi eta garbi egiaztatzen denean, erantzukizuna mailakatzeko irizpideak aplikatuko dira, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, eta irizpide horiek proportzionaltasun-printzipioari erantzun beharko diote.

19. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezke zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten dioten guztiak eta deialdiaren urtean burutzen direnak. Gastuen eskuratzeko-kostuak ezin izango du merkatuaren balioa gainditu.

Diruz lagundu daitezke jarduera zein egitaraua garatetik zuzenean datozen gastuak.

Ez da gastu diruz lagungarritzat hartuko BEZ kengarriaren zenbatekoa, baldin eta entitate onuraduna behartuta badago BEZaren aitortzea egitera. Beraz, hala gertatuz gero, gastu modura inputa daitezkeen kantitatea justifikanteen zerga-oinarriari dagokiona izango da.

Ez dira diruz lagunduko, diruz lagundutako jarduera kudeatzeko gastuak antolatzaileak ez den beste entitate batek garatzen dituzenean.



Dirulaguntzak, ordea, ez ditu hartzen elkartearen gastu orokorrak ez eta mantenukoak ere, nahiz eta horrelako gastuak zeharkako gastu modura inputa daitezkeen, gehienez dirulaguntzaren zenbateko osoaren %20raino. Horretarako, dena den, justifikatu egin beharko da gastuak ezin zaizkiola zuzenean inputatu diruz lagundutako jardue-
ra zehatzari, baina beharrezkoak direla antolatu ahal izateko. Ez dira diruz lagunduko banketxearen bermearen gastuak.

Erakundearen ohiko funtzionamenduari zerikusia duten gastuak zeharkako gastu gisa egotz daitezkeen gastu orokortzat eta mantentze-gastutzat hartuko dira, baldin eta erakundearen izenean badaude eta egoitza sozialak mantentzeari eragiten badiote. Gastu horiek honako hauek dira:

- a) Egoitza soziala alokatzeagatik gastuak.
- b) Ur-horniduraren, zabor-tasaren eta estolderiaren gastuak.
- c) Elektrizitate-horniduraren gastuak.
- d) Telefoniako eta Interneteko gastuak.
- e) Zerga-aholkularitzako eta kudeaketako gastuak.
- f) Aseguru-gastuak.
- g) Ekarpen-gastuak.
- h) Erakundearen jardueraren garapenarekin lotutako zuzendaritza artistikoko profesionalen zerbitzuei dagozkien langile-gastuak.
- i) Erakundearen jarduerari lotutako material artistikoa erosteko gastuak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuei dagozkien fakturak erakunde eskatzailearen izenean egin beharko dira, dirulaguntzaren deialdiak eragindako ekitaldiko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean sortutako gastuei dagokienez. Erakunde eskatzaileak dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu aurretik egin behar ditu ordainketak.

20. Dirulaguntzen abonamendua

Dirulaguntzaren zenbateko osoa alde zuzenean ordainduko da, justifikazioa egin aurretik eta inolako bermerik eskatu gabe, dirulaguntzak berez dakartzan jarduerak burutzeko beharrezko finantzazio gisara.

Dirulaguntzaren zenbatekoa entitateak emandako kontu korrontean sartuko da banku-transferentziaren bidez.

21. Arau-hausteak eta zehapenak

Oinarri-arauok dakartzaten betebeharrak ez betetzearen ondoriozko arau-hauste eta zehapenen araubide juridikoa Dirulaguntzei buruzko Lege Nagusiari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. izenburuak aurreikusten du.

22. Ebazpenerako epea, jakinarazpena eta argitalpena

Dirulaguntzaren emakidari edo ezeztapenari buruzko jakinarazpena prozedura administratiboaren arautegiari jarraiki egin beharko da.

Eskabideak ebazteko eta erakunde eskatzaileei jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, oinarri horien deialdia argitaratzen denetik kontatzen hasita. Gehienezko epea igaro eta eskabidearen ebazpena jakinarazi ez bada, administrazio-isiltasunez ezetsiko da.

Emandako dirulaguntza guztiak Udalaren webgunean, Dirulaguntzen Datutegi Nazionalan eta legezko bideen bitartez argitaratuko ditu Udalak.

23. Arau osagarriak

Arauok aurreikusi gabeko guztia Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiak, lege horren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, horretarako onartzen den udal ordenantza nagusiak eta erabil daitezkeen beste arau nagusi edo prozedimenduzko guztiek arautuko dute.